

**AUTOEBALUAZIOA****II. MODULUA: FARMAKOEN ADMINISTRAZIOA AHO-BARRUNBEAN**

1. Noiz dago erraztua farmakoen xurgapen sistemikoa aho-mukosaren bitartez?

- a) Farmako lipofiloak
- b) Farmako hidrofiloak
- c) Hidrodisolbagarritasunak edo lipodisolbagarritasunak ez dute farmakoen xurgapena baldintzatzen administrazio bide hau erabiltzen denean
- d) Administrazio bide hau erabiltzen denean xurgapena bakarrik pisu molekularrak baldintzatuko du

2. Farmako basiko baten aho-mukosaren bitarteko xurgapena handitzeko, erabili daitekeen estrategiarik egokiena aukeratu:

- a) pH basikoan indargetutako formulazioa erabili, farmakoaren disolbagarritasuna konprometitu barik
- b) pH azidoan indargetutako formulazioa erabili, farmakoaren disolbagarritasuna konprometitu barik
- c) pH basikoan indargetutako formulazioa erabili, farmakoaren disolbagarritasuna kontutan eduki barik
- d) pH azidoan indargetutako formulazioa erabili, farmakoaren disolbagarritasuna kontutan eduki barik

3. Farmako baten aho-mukosaren bitarteko xurgapen sistemikoa aztertzeko farmako horren disoluzioa gaixo bati administratzen zaio eta ahoan 5 minutuz mantendu behar du emandako. Farmako horrentzat aho-xurgapenari buruzko alde-aurretiko informaziorik ez badago, nola diseinatu beharko genuke saioa?

- a) Disoluzioan geratzen den farmako kantitatea neurtu beharko genuke
- b) Disoluzioan geratzen den farmako kantitatea eta odolean dagoen farmako kantitatea neurtu beharko genuke
- c) Disoluzioan geratzen den farmako kantitatea eta odolean dagoen farmako kantitatea neurtu beharko genuke eta aho-mukosako lagin bat hartu beharko genuke
- d) Disoluzioan geratzen den farmako kantitatea neurtu beharko genuke eta aho-mukosako lagin bat hartu beharko genuke

4. Farmakoen administrazioa aho-barrunbean:

- a) Bakarrik eragin sistemikoak lortzeko erabiltzen da
- b) Bakarrik tokiko eraginak lortzeko erabiltzen da
- c) Eragin sistemikoak eta topikoak lortzeko erabili daiteke
- d) Farmako gehienentzat lehen aukerako administrazio bidea da